


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a / 570. zenbakia



Al-Andalus

Andaluziako zatitxo
bat Arrasaten

ORAIN ETA HEMEN: ESKOLA PUBLIKOEN PLANGINTZA/8 • KULTURA: EMAKUME BASERRITARRAK/14

Etxeko lanak egitea guztion ardura da.



Emakumeen tailerretan:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Automobilen mekanika

Gizonen tailerretan:

- Joskintza
- Lisatzea
- Sukaldaritza
- Garbiketa

Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara
Otsailean hasi eta maiatzera arte • Matrikula: 12 €.

Izen ematea: Emakume Saila 943 79 41 39 edo
Gazte Bulegoan 943 77 00 65 telefonoetara deituta.
Azkeneko eguna: Otsailaren 13a.

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■





UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



**Zuen
zerbitzura!**

San Juan, 1 A
BERGARA
Tel./ Faxe:
943 76 54 91



KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu telefonuen antenak herrixen edo etxe onduen ipinttie?




ANIA MONTOIA
Ikaslie



TOÑI GÓMEZ
Etxekoandrie



PAULINA ÁLVAREZ
Etxekoandrie



EUGENIO URIBARREN
Langillie



JONATHAN SÁNCHEZ
Ikaslie



IGOR BEITIALARIGOITIA
Ikaslie

Ondo pentsetan jat hola-
kuek egotie; holan, telefo-
noz berba egin ahal izengo
dogu. Horreik antenok ez
dustie bilddurrik emuten,
eta uste dot ez diela bat be
kaltegarriek.

Egixe izen ezkerok ez dauela
kalterik egitten, ez litxakit
inportauko, baiñe kalterik
egitten badaue, horixe
inportetan jatela. Dana dala,
hobe holakuek herrittik
kanpo, kalterik egin edo ez.


Nik ez dot holakorik gure
etxe gainien; ipiñi daixiela
Telefonicako jabien etxe gai-
ñien. Nere ustez, oso peli-
grosuek die. Gaiñera, kasu
honetan umien bizitzen gai-
ñien gabitz...

Hobe da horreik antena
horreik urrin egotie.
Uste dot peligrasuek diela,
bestela, peligrasuek ez bali-
tzez, uste dot ez leukiela
atarako ataraten dabitzen
zaratie.

Neri ondo pentsetan jat
holako antenok egotie, eta
ez litxakit inportauko
nigandik gertu ipinttie.
Nere ustez, ez daue inola-
ko kalterik egitten, eta oso
seguruek die.

Ondo konprobau ezkerok
ez dala txarra osasan-
dako, ondo pentsauko
litxakit, baiñe ondiokan
ez dagoenez dana ondo
konprobaute... Duda asko
dagoz ondiokan.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ESTOLDA LAPURTZAILEAK Harritzekoa badirudi ere,
irakurle batek jakinarazi digunez, Erguin eta Uribe auzoen inguruetan
estolda batzuk desagertu dira denbora gutxian. Eskerrak, guk daki-
gula behintzat, inork istripurik izan ez duela, eta, horrez gain, Uda-
leko langileek estolda berriak jarri eta zuloak estali dituztela. Hala
ere, oraindik badago estali beharreko beste zuloren bat.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

Kolektorearen lanak

Urtarril amaie-
ran, Santa Teresa
adarrari ekingo
diote. Kalea
moztuta egongo da
hilabetez.

KIROLA /12

Mondra bolada onean

Mondrak azken
zazpi partiduetan
19 puntu eskuratu
ditu. Zapatuan,
Intxurre izango da
Atxabalpen.

ZAHARRAK BERRI /17

Osasun azterketak

Roman Balantza-
tegi medikuak
hirugarren
adinekoen osasun
azterketez berba
egin digu.

ASTEKODATUA

%85

**EK AUKERATU DUTE
IGERILEKUKO ABONUA**

Aukeak aditzera eman duenez,
Musakolako kiroldagiko erabil-
tzaileen %85ek (4.125 lagun) ige-
rilekuko abonua aukeratu dute.
Abonu plusa, berriz, %11k, eta
kiroldegi abonua, %4k.

BESTEKEESANA

**“ Ni abokatua naiz,
baina lan honetarako,
bake epailea izateko,
ez da derrigorrezkoa.
Maiatzean hiru urte**

**egingo ditut, eta hurrengoa azkena
izango da. Oso gustuko lana dut,
azken finean, neuk ikasitakoarekin
lotura handia daukalako. Baina oso
gutxi ordaintzen dute, ezinezkoa da
honetaz bizitzea. Normalean astean
birritan etortzen naiz, baina beste
edozer suertatuz gero etortzen naiz;
adibidez, zapatuetan, ezkontzarik
balego. Denetik egiten dut: ezkon-
tzen, jaiotzen eta heriotzen notario
antzekoa naiz. Bestela, epaiketa
batera joan baino lehen bi aldeak
hemen bildu eta ea konponbiderik
duten aztertzen dut. Bestela, hemen
bake epaitegian faltan epaiketak
egiteko aukera ere badugu, baina
behin bakarrik egin da halakorik”.**

KARMEN IRIONDO
ARRASATE IRRATIA/02-01-18

HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



*Gure
baserrien
izenak*

Santamas egunean ederto
pasatu nuen. Bazen
Mondragoen zer ikusi,
zer dastatu eta zer erosi.
Eta dena ezin ikusi, ez dastatu,
ez erosi. Santamas komisiñuek
antolatutako Arrasateko
baserrietako antzinako tresnen
erakusketa zen ikusgarrietako
bat. Eskertzekoa da
eta baita txalotzekoa
komisiñuek egin
duen lan ederra. Eta
aitortu behar dut
pena dudala erakus-
keta ganoraz ikuste-
ko behar zen denbo-
ra guztia ez niolako
eskaini.

Han jaso nuen
triptikoan makina
bat informazio dago horren
inguruan. Tartean esaten da
datorren urtean gaiaren ingu-
ruan liburuxka bat ateratzeko
asmoa dutela. Biba zuek!

Bestalde, informazioa eta
tresneria baserrietan jaso denez,
Uribarri, Garagartza eta
Gesalibarko hogeita sei baserri
aipatzen dira, haiei eskerrak
emateko. Eta baserri horien
izenak irakurtzean, betiko
kezka sortu zait: zein gutxi
inporta zaigun izen horien

idazkera! Norbere izena ondo
idazteari ezinbesteko baderitzo-
gu ere, bestelako izenak (base-
rrienak, mendienak...) ez bide
dira hain garrantzitsuak.
Inpresio hori hartzen dut
ikusten ditudan ikusita.
Baserrietara itzuliz, hogeita
seitik hamahiru beste modu

**“Norbere izena
ondo idazteari
ezinbesteko
baderitzo gu ere,
bestelako izenak ez
bide dira hain
garrantzitsuak”**

batean idatziko
nituzke. Baina hau
esateak ez du asko
esan gura. Irizpide
ezberdinak egon
baitaitezke. Eta ez
dira zertan nireak
onenak izan behar.
Edozein modutan,
kontraesan garbiak
ikusten ditut: batetik
OLEAGA, bestetik

ARRUA. Koherentzia behar dela
uste dut: edo biak forma osoan
(OLEAGA, ARROAGA), edo
laburtuan (OLIA, ARUA).
Beste adibide bat: mundu
guztiak onartzen du toponimian
lekuan lekuko ezaugarriak
gorde behar direla. Gesalibarren
ez da eliza esaten, ez Garagar-
tzan berri. Hortaz, ELIZGARAI
eta ETXEBERRI horiek guztiz
arrotzak dira hemen. Badira
kontu gehiago, baina hemen
leku nahikorik ez. Agur.

Arrasate

Otalora lizentziaduna z/g
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla,
Izaskun Bolinaga,
Natali Martínez,
Imanol Elortza.

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Ganzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilartzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Animalien tratu txarren aurka

Azken hilabeteotan, Arrasate Zoo animalia dendan eta herriko bi albaitariren kontsultan sinadurak batzen dihardute. Helburua da sinadura horiek erabiltzea animaliei tratu txarra eragitea legebiltzarrean delitu moduan hartzeko. Urrian, ezezagun batzuek Tarragonan tratu txarrak eragin zizkieten txakur batzuei. Ondorioz, Bartzelonako Altarriba animalien lagun taldea sinadurak batzen hasi zen. Gura dutena da animalien kontrako edozein tratu txar delitu izatea, izan ere, oraindik gai horretan hutsunea dago.

Gaztetxean zarata larregi

Azoka kaleko laugarren zenbakian bizi diren bizilagunek gaztetxeak eragiten duen gehiegizko zarata salatu zuten Udalean. Bizilagun horien ustez, gaztetxean musika oso altu ipintzen dute eta, gainera, edozein ordutan izaten ei da zarata. Horrekin batera, salatu zuten inguru horretan automobilerik edozein moduan aparkatzen dutela, askotan espalo gainean. Gazteria Sailari eskatu diote arazo horri irtenbidea ematea.

PSE-EEren kritikak alkatetzari

Ikurrinari omenaldia egiteko ekitaldia dela-eta, Arrasateko PSE-EEk Udaleko alkatetzaren jarrera kritikatu zuen, egubakoitzean komunikabideetara bidalitako prentsa ohar baten. Batetik, adierazi zuten erabaki zela omenaldia egitea gainerako alderdiei ezer galdetu barik; gaineratu zuten, euren ustez, beharrezkoa zela bozeramaileen batzordea deitzea ekitaldia antolatu baino lehen; bestetik, ikurrinaren omenaldia modu partidistan egin izana salatu zuten, besteak beste, sozialistak alde batera utzita. Ikurrina euskaldun guztien ikurra dela nabarmendu eta gero, babes eta fideltasuna erakutsi zioten eta adierazi zuten ez zirela izango omenaldian.



Ikurrinari omenaldia, txalo artean

Herritar dezente batu zen zapatuan, herriko plazan, ikurrinari omenaldia egiteko. 1977an moduan, osoko bilkura egin zuten zapatuan, eta gero, ikurrina altxatu zuten Udaletxe bakoian, jendearen txalo artean. Dantzariak eta trikitilariak saio berezia eskaini zioten ikurrinari.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Argentinarrak amorratuta

Argentina berabai dugu azkenaldian. Herrialde hegoamerikar hartako ekonomia kili-kolo dago eta argentinarrak (aberatsek izan ezik, beste guztiek) eztanda egin dute. Ezin dute horrela jarraitu! Argentina distantzian urrun badago ere, badago gure artean nolabaiteko lotura. Espainiako Estatuan argentinarrak asko daude eta Euskal Herria ere


ez da salbuespena. Horrez gain, aspaldi, euskaldun askok hara jo zuten. Diote, hantxe dauden euskaldunak eta euskaldunen semeak batuta hiru bat milioi izango dira, eta hirurogeita bost bat euskal etxe ei daude.

Dena dela, ezagun da, argentinarrak askoren ustetan, orain sufritzen ari direna diktaduraren ondorengo

politikari ustelen errua dela. Euren erruz, Argentinako ondasunak atzerriko enpresei saldu ei dizkiete, eta, horra hor, era berean, Nazioarteko Diru Funtsak ezarritako kanpo zorra ere.

Atzerriko enpresen kontuari dagokionez, ez dakit euskaldunok horren erantzukizunik izango dugun, baina ziur espainiar batzuek badutela. Horra hor, Hego Amerikako herrialde askotan ederto aberastu den Telefonica, adibidez.

ASTEKOIRUDIA



UBANE

SAN KRISTOBAL HILERRIKO ERRAUSKETA-LABEA INAUGURATU ZUTEN

Joan den egubakoitzean estreinatu zuten gorpuk errausteko labea. Zerbitzu horrek ez du batere kutsatzen, eta beste leku batzuetan baino merkeagoa izango da. Arrasaten gorpua erraustea 150,25 euro kostatuko da (25.000 pezeta). Jose Mari Urizar Udaleko Zerbitzu Saileko buruak adierazitakoaren

arabera, hilerriko errausteko labearekin zerbitzua eskaini nahi da, eta ez dirua atera. Egindako kalkuluen arabera, diru horrekin Udalak ez du dirurik irabazten, ezta galtzen ere. Hortaz, zerbitzua eskaintzea da helburua. Hasieran, eguneko errausteko bat egingo dute.

M

MEMESA

**Industria
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

Fisioterapeuta

**Sonia
Boisa Castelao**



943 79 53 75
943 61 50 37

Errebuelta, 2 - 3D
ARRASATE

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

KULTURA/Al-Andalus elkarteak hamabi urte beteko ditu

Andaluzia gurera ekarri eta, bide batez, Euskal Herria kanpoan ezagutzera eman

IKER BARANDIARAN

Al-Andalus elkarteak hamabi urte beteko ditu hilaren 28an. Hala ere, hilaren 26an eta 27an ospatuko dute urteurrena. Ibilbide luze eta arrakastatsua egin du Andaluziaren zati bat Euskal Herriraino ekarri duen elkarte horrek, eta kanpoan Euskal Herria ezagutarazi du.

90eko hamarkadaren hasieran, Arrasaten bizi ziren andaluziar batzuk batzen hasi ziren. Izan ere, Arrasaten baino areago, oportetan euren jaioterrietara joaten zirenean egiten zuten topo sarriago. "Dagoeneko hemen geldituko ginela bagenekien eta, hortaz, noizbehinka hemen batzeko eta elkarrekin egoteko leku bat zabaltea erabaki genuen". Hasieran, ohiko elkarte gastronomiko bat sortzeko asmoa zeukaten -"50 edo 60 bazkidez osatutakoa"-, baina gauzak aldatuz joan ziren. Gasteizko eta Durangoko andaluziarren elkarteak bisitatu eta elkarte erregionala egitea adostu zuten. Gerora, 1990ean Abaroan egin dako batzar baten jende kopuru polita batu, eta elkarte eratu zuten. Handik gutxira, Musakolako kiroldegian Andaluziako eguna antolatu zuten, eta 1990eko San Juanetan egoitza zabaldu zuten, Erguinen.

"Gauzak azkarregi joan ziren. Ez genuen halako harrera onik espero. Bazkide kopuruak gorantz egin du eta gaur egun 437 daukagu. Horrez gain, astean hainbat ekitaldi izaten ditugu", azaldu zigun elkarte sortu zenetik joan den astera arte elkarteko presidente Rafa Gómezek.

Izenari dagokionez, berriz, Andaluziako gobernuak herrialdearekin harremana duen zer-



Erguinen izan zuten egoitzan eta azken bost urteotan Musakolakoan, ekitaldi mordoan antolatzen dituzte.

"Gauzak oso azkar joan dira. Ez genuen halako harrera onik espero. Bazkide kopurua itzela da"

baiten izena jartzea aholkatzen zien, eta Arrasatekoek Al-Andalus jarri zioten, garai arabiarrek gogora ekarrita. "Guk hau sortu

"Bazkideen %30ek lan handia egiten dute kolaboratzaile gisa. Eskerrak euren borondateari"

genuenean, Debagoien osoan ez zegoen horrelako elkarerik, eta gurean, andaluziarrez gain, extremadurarrak eta euskaldunak ere

"Hasieran, elkarte gastronomikoa sortzea pentsatu genuen, baina gero, animatu egin ginen"

badaude. Horrela, arabiarren garaian ia penintsula osoa Al-Andalus zenez, izen hori jarri genion elkarteari".

Al-Andalus elkarteak sortzeratik izan dituen helburuen artean, bi nabarmen dituzte: bata Andaluziarekin duten herrimina pixka bat ase eta, era berean, gurean, Euskal Herrian, Andaluzia, ohikoaz gain, ezagutzera ematea; eta, bestea, Andaluziaren ere Euskal Herria ezagutzera ematea.

ARRASATEKO PORTALIOA NON-NAHI
Lehenengo helburua, hau da, Andaluzia eta andaluziarren kultura gurean ezagutzera ematea, ederto bete dute. Baina, hala ere, ez dute horretan atsedetik hartu. Eta beste helburuari ere, hau da, Andaluzian eta Espainiako Estatu herrialdeetan Euskal Herria ezagutzera emateari, garrantzi handia eman diote hasiera-hasieratik; izan ere, zenbait urtean Al-Andalusek euskal dantza taldeak izan du elkartearen baitan, eta kanpora joan diren bakoitzean dantzaz egin du talde horrek. Gerora, taldea desagertu egin zen arren, Lore Gazteak dantza taldea eraman izan dute sarri, baita MCCren sortzaileak ere, hitzaldiak egitea. "Kanpoan Euskal Herriaren irudi zehatza egina dute, eta horri aldatzen ahalegintzen gara".

Bestalde, oso berezia da beste herri batera joaten diren bakoitzean eramaten duten opari berezia Mondragoeko Portaloiaren margolan bat, hain justu ere. Dagoeneko Espainiako Estatu herri askoan dago.

Hamabi urtean egin dako elkarte trukeetan pasarte ugari bizi izan

Hamabi urte dagoeneko... eta erronkak handiagoak dira

Asteburu honetan elkarteak hamabi urte egingo dituela ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu zaturako eta domekarako. Zapatuan, Al-Andaluseko bazkideek afaria egingo dute. Domeka (hilak 27), berriz, egun handia izango da. 10:30ean, koru eta guzti, Salamancako Andaluziako Etxekoei ongietorria egingo diete. Segidan, ogitartekoa jango dute liburutegian. Ekitaldi horretan, Mondragoeko Portaloiaren margolana oparituko diete. 12:00ak aldera, Kordobako basoetatik ekarritako jakien parrillada izango dute. Sabela pixka bat baretzeko eta herrian ibiltzeko, 13:00ak eta 15:00ak artean Mondragoeko erdialdea bisitatuko dute. 15:00etan, herri bazkaria egingo dute Al-Andalusen. 17:30etik aurrera, berriz, Arrasateko Sueños de Andalu-

cia dantza taldeak, Al-Andalus koru errozieroak eta Salamancako Andaluziako Etxeko koru errozieroak emandak egongo dituzte.

Hori gutxi balitz, otsailaren 28an, Andaluziarren eguna ospatuko dute, eta ekitaldi mordoan izango dira. Aste Kulturala ere hitzordu garrantzitsua izan ohi da. Eta ezin ahaztu Errozioren ospakizunak Arrasaten izaten duen arrakasta ere. "Errozia ospatu genuen lehenengo urtean beldur ginen izango zuten harrerarekin, baina dena ezin hobeto joan zen, eta orain badakigu, erlijio sinismenetik kanpo, jende askok oso gustuko duela egun horretako giroa. Duela hamabost urte ezinezkoa irudituko litzateke".

Urtean ehunka ekitaldi antolatzen ibiltzen badira ere, urte honetarako ezuste pare bat prestatzen dihardute.

Hain zuzen ere, apirila eta maiatza artean Mondragoan antolatuko duten Euskadiko Abeslari Flamenkoen Lehen Txapelketa -lehen bi finalerdiak Al-Andalusen eta finala Amaia Udal Antzokian- eta Arrasateko Lehen Txiste Txapelketa.

Horrez guztiaz gain, iaz, Andaluziako probintzietako jantzien desfile arrakastatsua ere egin zuten, eta urtero, beste elkarte batzuekin lankidetzan, saeta lehiaketa ere egin ohi dute.

Funtsean, hainbat ekintzaren testigantza ere hartu dute. Esaterako, aspaldi Amaia Udal Antzokian egiten ziren playback jaialdiak duela urte batzuk eurek berreskuratu dituzte. Ea zein beste elkartek parekatzen dituen hauek urtean egiten duten ekitaldi kopurua. Ez da erraza izango!



dituzte, eta Al-Andaluseko batzar-
kideek ondo gogoratzen dute
horietako bat: "Lehenengo aldiz
elkartruke bat egin genuenean,
Getafera joan ginen. Bazkaloste-
an dantzaldia egin zen, eta guta-
ko inork ez genekien flamenkoa
dantzatzen".

Estura hura pasatu ondoren,
bai Mondragoeko egoitza zaha-
rrean baita duela bost urte Mus-
akolan zabaldu zuten egoitzan ere
flamenko ikastaroak egin dituz-
te, ia etengabe. Are gehiago, ikas-
taroan parte hartzeko itxaronze-
rrenda izugarria egon ohi da ia
beti. Horrez gain, gitarra fla-
menkoa jotzen ere erakusten dute
astero; gainera, Al-Andalusen bai-
tan oso gitarrista ona daukate, eta
orain egoitzan dihardu, maisu.

ZUZENDARITZA BATZAR BI

Al-Andalus elkartearen funtzio-
namenduari dagokionez, zuzen-
daritza batzar bi daukate: bata,
nagusiena, eta bestea, gazteena.
Gazteena hamalau eta hogeita
hamar urte bitartekoek osatzen
dute eta autonomia propioa dau-
ka (estatutuak, aurrekontua...).
Batez ere, urteko ospakizun nagusietan gazteei zuzendutako eki-
taldi bereziak antolatzen dituzte.

Nagusien batzarra hamasei
lagunek osatzen dute, eta urtero
horien erdia berri egiten dute.
Horrela, batzarrera sartzen den
taldea ez da hutsetik abiatzen,
euren baitan esperientziadunak
dituztelako.

Hala ere, batzarretako jende-
az gain, kolaboratzaile gisa beste
ehun eta berrogeita hamar lagun
dituzte, bazkideen %30, gutxi gora-
behera. Azken horiek taberna eta

sukalde lanak, garbiketak eta bes-
te edozein lan egiten dituzte. "Ezin
gara kexatu dugun kolaboratzaile
kopuruaz. Eurengatik ez balitz,
Al-Andalusek ezin izango luke
horrelako erritmoan jarraitu. Bes-
talde, horien artean gazteak ere
badaude, eta badirudi errelebua
ere badagoela", diote pozik batzar-
kideek.

Ezin ahazt daiteke Al-Anda-
lusera jende ugari joaten dela.
Izan ere, Musakolako egoitzako
ateak zabalik daude beti, eta han
oso giro berezia aurki daiteke.

Egoitza andaluziar eran txukun-
txukun apainduta daukate: taber-
na, ikuskizun-aretoa, bulegoak,
liburutegia eta ikastaroendako
gelak. Era berean, bigarren solai-
ruan Andaluziako laurogeita
hamar pertsonaia famaturen iru-
diak dituzte, eta gelatxo baten
amabirjina ere bai.

Egoitzan hainbat talde daude:
Alegria de la Sierra izeneko koru
erroziera, dantza taldea, Chiri-
gota taldea, eskulan taldea eta bes-
te hainbat. Eskulan taldean ibil-
tzen diren emakume eta gizonek

euren arbasoen antzinako lan-
gintzak erakusten diete gazteei.

TXANGOAK ETA ELKARTRUKEAK

Al-Andalusekoek argi dute ez dute-
la gura, inola ere, ghettorik osa-
tu. Horregatik, elkarteko ateak
mundu guztiari zabaltzen dizkio-
te, eta euren egoitza dotoretik irte-
teko ez dute inolako alferkeriarik.

Horra hor, urte hauetan guz-
tietan, urtero-urtero, Andaluzia-
ko herrialde ezezagunetara egin
dituzten txangoak eta beste uda-
lekin eta elkarteekin egiten dituz-

ten elkartrukeak.

Espainiako Estatuko herriak,
herrixkak eta herritarrak ezagu-
tzeko aukera ugari izan dituzte.
Hara joan, hangoa ezagutu eta
dastatu, eta gero, hangoak hona
gonbidatu eta denetarik eskaini.
"Pozik joaten dira hemendik asko
eta asko. Eta gu ere bai, euren
musuak ikusita. Askok ez dute
Euskal Herria benetan ezagutzen,
eta duten irudia asko aldatzen
zaie". Asteburu honetan, urteu-
rrena ospatzeko, Salamancako
andaluziarrak etorriko dira.



Bazkideei eta tabernari esker finantzatzen da Al-Andalus. Tabernan Andaluziako jaki gozoak dastatzeko aukera egoten da, gainera.

ARTXIBOA



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.
Lorazaintzako
mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Kolektorearen lanak direla eta, Santa Teresa kalea hilabetez moztuta

UBANE MADERA

Udalerrian egiten ari diren kolektorearen obren barruan, datorren astetik aurrera Santa Teresako adarrari ekingo diote. Lan horiek, bereziki, Santa Teresa kalean igarriko dira; hain zuzen ere, horren ondorioz, kale hori itxi egingo dute hilabetez.

Herriko ur zikinak batzeko Arrasaten egiten ari diren kolektorearen barruan, hil honen amaieran, Santa Teresako guneari dagokion zatiarekin hasiko dira. Gune horrek honako lekuak hartzen ditu: San Isidro ermita, Musakolako kiroldegitik gertu dagoen aparkalekua, Gernika Oinezkoen Zumardiaren bidegurutzea eta Santa Teresa kalea.

Udalak jakinarazi du lanak, bereziki, Santa Teresa kalean izango dutela eragina: ibilgailuen zirkulazioan, aparkalekuetan, herri autobusean, zabor bilketan eta, orokorrean, kalearen joan-etorri osoan. Ondorioz, erabaki dute hilabetez, gutxi gorabehera, kale hori guztiz itxiko dutela. Horrek esan gura du ezin izango dela ibilgailurik pasatu (ezta autobus urbanoa ere), ezin izango dela aparkatu, ezta zaborrik batu ere.



Joan den urteko otsailean hasi zituzten lanak.

ARAZTEGIA

Joan den urteko otsailean hasi ziren egiten Mondragoeko ur zikinak batzeko kolektorea. Takoloko biribilaren eta Fagor Elektresnak lantegiaren arteko erreka zatiaren ondoan hasi ziren.

Hain justu, Arrasatetik pasatzen diren Deba eta Aramaio erreketara botatzen diren ur zikinak batuko ditu kolektoreak.

Hasierako asmoen arabera, 16 hilabetez jardungo dute lane-

an. Bederatzi milioi euro pasatxoko inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak lan horretan (1.600 milioi pezeta inguru).

Behin herriko ur zikinak batuta, Roneo ingurura eramango dituzte hodi baten bidez. Han Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko ur zikinak ere batuko dituzte. Izan ere, Epelen ibarreko ur zikin horiek garbitzeko araztegia eraikitzeko asmoa du Espainiako gobernuak.

LABUR

Santa Ageda koruak entsegua egingo du eguaztenean, santuaren bezperan kantatzeko

Herriko Santa Ageda koruak entsegurako dei egin die kide guztiei poltsero, kantari, sukaldari eta bestelakoei. Datorren eguaztenean hilaren 30ean, izango da entsegua, Casino elkartean, 21:30ean.

Hortaz, aurten ere, kantari entzungo ditugu Santa Ageda bezperan. Ohi bezala, 08:00etan, meza entzungo dute eta gero bi taldetan banatuko da korua: bata Zigorrolara joango da eta bestea Udalara. Eguerdia arte ibiliko dira kantuan. Gero, herriko plazan elkartu eta bazkaltzera joango dira. Arratsaldean, berriro ekingo diote kantuari; talde bat ikastetxeetara joango da, eta bestea Santa Agedara. 19:30ean elkartuko dira berriro guztiak Montem, eta handik bi taldetan txikiteoa egingo dute, 21:30ak arte. Orduan, herriko plazan elkartu eta azkeneko aldiz abestu eta gero, afaltzera joango dira. Guztira, 14 ordu kantuan arituko dira. Batutako dirua Caritasi emango diote. Iaz, 1.190.000 pezeta batu zituzten.

Erabilera Anitzeko Eraikinaren lanak aurrera doaz. Hamahiru hilabetez jardungo dute

Astehenean ipini zuten Erabilera Anitzeko Eraikina egiteko garabia. Uarkape pilotalekuaren atzeko aldean ipini zuten, behean, lanak egiten ari diren lekuan, ez baitago lekurik hain garabi handia ipintzeko (38 metro garai da). Garabi horrekin, Erabilera Anitzeko Eraikina egiteko lanik handienak egingo dituzte.

Gabonen ostean hasi zituzten eraikina egiteko lanak, urtarrilaren 7an, hain justu. Eta hamahiru hilabetez bukatuta egotea aurrez ikusita dago, hortaz, datorren urteko otsailerako. Milioi bat eta seihun mila euro pasatxoko inbertsioa egin beharko dute (272 milioi pezeta pasatxoko). Amenabar enpresak egingo ditu lanak. Eraikinak lau solairu izango ditu. Lehenengo biak gaztetxerako izango dira; hurrengoak musika taldeek entseguak egiteko, eta azkenak emakumeen txokoa izango da. Berezitasun moduan, eraikinak igogailu bi izango ditu; bata barruan, solairu guztietarako; eta bestea kanpoan. Izan ere, Erabilera Anitzeko Eraikinaren lehenengo solairua ez da kalearen maila berean egongo, baizik eta apurtxo bat gorago. Hortaz, sartzeko beste igogailu bat ipiniko dute, kanpoan.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzarako plangintza berria

UBANE MADERA

Datorren ikasturtetik aurrera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoek plangintza berria izango dute. Haur Hezkuntza San Andres eskolan izango da eta Lehen Hezkuntza, Erguin eskolan. Musakolan, berriz, bi eta hiru urteko umeak izango dira.

2002-2003 ikasturtean, aldaketa dezente izango ditu Arrasaten eskola publikoak. Datorren ikasturtetik aurrera (irailetik aurrera), beste modu batean antolatuko dituzte Haur eta Lehen Hezkuntza. Hain justu, Arrasaten ikastetxe bakarra eratu gura dute, bi eraikinetan banatuta. Horrela, Haur Hezkuntza (2-6 urte bitarteko umeak) San Andresko eskolan kokatuko da eta Lehen Hezkuntza (6-12 urteko umeak) Erguingoan. Edozelan ere, salbuespen bat badago: datorren ikasturtean, behintzat, Musakolako herri eskolan bi eta hiru urteko ikasleak gaur egun daudden eraikinean (ezkerrekoan, antzinako San Antolin eskolan) geratzea aurrez ikusi du jaurlaritzak. Horren ondorioz, 2002-2003 ikasturtetik aurrera, lehenengo maisu-maistren eraikina



Erguin herri eskolan 6-12 urteko umeak izango dira (Lehen Hezkuntza).

hutsik geratuko da.

LANAK SAN ANDRESEN

Baina Haur Hezkuntzako ikasleak San Andres ikastetxera joan baino lehen, eraikin hartan lanak egitea komeni da. Batetik, eraikina gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzeko, eta, bestetik, eraikinari duintasuna emateko. 180.000 euro pasatxoko inbertsioa egin beharko dute lan horietan (30 milioi pezeta). Uda-

laren eta Jaurlaritzaren artean ordainduko dituzte lanak.

ADINAREN ARABERA

Hori guztia egiteko arrazoiak dira jaiotze tasa baxua eta LOGSE erreforma. Orain arte, bai San Andresen, bai Musakolan baita Erguin herri eskolan ere 2-12 urteko umeak zeuden. Hemendik aurrera, eta plangintza berri honekin, umeak adinaren arabera banatuko dituzte.



San Baleixoak Meazterrekan

Gaur hasi eta domekara arte San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meazterrekan. Gaur, auzo afaria eta dantza saioa izango dituzte, 21:00etatik aurrera. Bihar, berriz, 12:00etan, futbito partidua izango da; 15:30ean, umeendako eta gazteendako jolasak; 16:30ean, Gorritiren animaliak eta 17:00etan, XXI. Mus Txapelketa. Gauetan, berriz, 23:00etan, Anaiak taldearekin erromeria eta 01:00etan, txerri harrapaketa eta berakatz zopa. Domekan, 11:30ean, meza izango da San Baleixo ermitan, 13:00etan, txistularien saioa eta 14:00etan, jaietako amaiera emango zaie.

AKEI erraustegia erabileraren arabera berreskuratuko dute


UBANE MADERA

IHOBEk aurkeztu du AKEI erraustegiak eragindako kutsaduraren gaineko azterketa. Hala, gunee hura industria edo komertziorako erabili gura izanez gero, ez litzateke osasunarendako arriskurik izango. Bai, ordea, umeendako jolastokia eginez gero.

Iazko udan, 2001ean, Geysler izeneko enpresa AKEI erraustegiko lurak aztertzen ibili da IHOBEren enkarguz. Helburua zen jakitea zenbaterainoko kutsadura duten inguruko lurak AKEI erraustegiaren funtzionamenduaren ondorioz.

Oraingo astean aurkeztu dizkio IHOBEk azterketa horren emaitzak Udalari. Jakinarazi dienez, lur haiek ez lirateke osasunarendako arriskutsuak izango baldin eta industriarako edo komertziorako erabiltzen badira. Baina, berriz, orain dagoen moduan ezin izango litzateke umeendako gunerik eraiki, ez bailitzateke guztiz segurua.

Horrekin batera, IHOBEren txostenak aditzera eman du erraustegiak ez diela kalterik egin



ARTXIBOA

Azterketa sakonagoa egingo dute eta gero erabakiko dute zertarako erabili AKEI.

aldameneko baserriek eta baratzei.

Edozelan ere, Udalak jarraitu beharreko gomendio batzuk ere egiten ditu IHOBEk. Hala nola, lurraren kalitatea guztiz zehazteko azterketa sakonagoa egitea gomendatzen du, uren kalitatea zaintzen segitzeko ere esaten du, baita lixibiatuen kalitatea zaintzeko eta, dauden ezpondak berdintzeko ere gomendatzen du. Horrez gain, metano gas pilake-

ta dagoela ere abisatzen du, Udalak hori kontuan hartu dezan.

ZERTARAKO DEN ERABAKI

Emaitzak ikusita, Udalak orain egoeraren azterketa zehatzagoa egingo du. Gero, lur horiek zertarako erabiliko dituen erabakiko du, eta horren arabera berreskuratuko ditu lurrok. Gaur egun, zaborra pilatzeko eta konposta egiteko erabiltzen dute gunee hura.

Herritar gehienek igerilekuko abonua aukeratu dute kiroldegirako

UBANE MADERA

Orain arte batutako datuen arabera, kiroldegiko bazkideen %85ek igerilekuko abonua aukeratu dute kiroldegiko bazkide izateko. Hortaz, 4.125 lagunek egin dute aukeraketa hori.

Orain dela bi aste aurkeztu zuten AUKEAk aurtengo eskain-

tza: lau abonua mota kiroldegiko bazkide izateko: igerilekuko abonua, kiroldegi abonua, abonua plusa eta udako abonua, hain justu. Eta, hasierako datuek erakutsi dute, jendeak kiroldegiko alde umela erabiltzea gurago duela.

ABONU PLUSA

Bigarren lekuan, abonua plusa

dago. Bazkideen %11k aukeratu dute, 550 lagunek baino gehiagok. Eta, hirugarren lekuan, alde lehorren aldeko bazkideak daude, kiroldegi abonua aukeratu dutenak, hain justu. Bazkideen %4ak aukeratu du hori, 163 lagunek. Bestalde, udako abonua ere badago aukeran, baina, jakina, horretarako goiz da oraindik.

LABUR


Presoei elkartasuna erakusteko, Madrilerako bidaia antolatu du AGAKOK

Oraingo asteburuan, herriko presoei elkartasuna adierazteko, bidaia antolatu dute. Madrilerako joango dira, Alcalá de Henares eta Aranjuezko kartzelara. Hantxe daude eta Amaia Arrieta, Txus Goykoetxea eta Premin Sanpedro arrasatearrak.

Gaur irtengo da autobusa, Arbolapetatik, 00:00etan. Eta, presoak bisitatu eta gero, bihar itzuliko dira herrira, 00:00etan. Autobusa 12 euro kostatuko da (2.000 pezeta). Bidaia Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatuak antolatu du.

San Felipe Apostol elkarteak batzar nagusia deitu du domeka eguerdirako

Urtero moduan, urtarrilaren amaiera aldera, urteko batzar nagusia dute San Felipe Apostol elkarteak bazkideek. Domekan izango da (hilak 27), eguerdian. Baina, lehenengo, hildako bazkideen aldeko meza izango dute, San Juan Bautista parrokiaren, 11:00etan. Gero, Amaia Udal Antzokian elkarteak dira guztiak, 12:15ean, batzarrak egiteko. Zazpi gai dituzte zerrendan; besteak beste, azken urteko ekintzen berri ematea, diru kontuen zuriaketa eta elkartearen zuzendaritza batzordea berritzea.



Kanposantuko errausketa-labea erabilgarri

Joan den egubakoitzean, errausketa-labea inauguratu zuten. Hortaz, dagoeneko erabilgarri dago. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Xabier Zubizarreta alkatea, Jose Mari Urizar "Ametzu" Zerbitzu Saileko burua eta Juan Jose Sáez zinegotzia. Errausketa zelan egiten den erakutsi zuten, esanez, pare bat ordu irauten duela. Bitartean, familiak telebista gelatik ikusiko du. Hasieran errausketa bat egingo dute egunean.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak


- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



AEK-KOAK GURERA


Komunikabide baten zelan egiten den ikustea erakargarria izaten da askorendako, eta gurean hiru batera daudenez, are erakargarriagoa oraindik. Joan den astean, AEK-ko euskara ikasleak izan genituen, eta haietako batzuek ondo ezagutzen gintuzten. Erredakzioa lasai-lasai zegoela etorri ziren, eta eskerrak!



SEBER ALTUBEKO LUDOTEKAK BEDERATZI URTE

Seber Altubeko ludotekak bederatzi urte beteko ditu aurten, eta joan den eguaztenean, aitzakia horrekin jai aparta antolatu zuten. Arratsaldeko bostetatik aurrera, ume mordo bat izan zen ludotekan. Askaria egin zuten, karaokean abestu zuten,

hainbat jokotan ibili ziren, txapak egin zituzten eta beste hainbat ekintza ere izan zituzten. Esan beharrik ez dago umeek bikain pasatu zutela, eta datorren urtean ere jai polita egingo dute, orduan, hamargarren urteurrena izango da-eta.



GABONETAKO ARGIAK

Udaberria mutur parean izanda ere, Arrasateko kaleetan Gabonetako argiak dago, Gabonetako argiek oraindik ere kaleak apaintzen dituzte-eta. Badirudi Olentzero eta Erregeak ez direla etxe guztietara iritsi, eta bateren bat opariren baten zain dago. Egia esan, ez dute trabarik egiten, baina lekuz edo epez kanpo dauden edo...



ARRASATEKO UMEAK SAN SEBASTIANETAN

Egubakoitz eguerdian, Arizmendiko San Viator Txikiko ikasleek domekan Donostian izan ziren danborraden ia parekoa egin zuten. Hainbat mailatako ikasleak jolastokian elkartu ziren danbor, traje eta txapelekin, eta asteburuan Donostian eta Azpeitian izan ziren San Sebastian jaiak ederki berotu zituzten. Ume mordoa egoteaz gain, gurasoek ere ez zuten ekitaldia galdu gura izan, eta danborrariak asko baziren, argazki-kamerarekin eta bideokamerarekin zebiltzan gurasoak are gehiago ziren. Izan ere, zelan ez eduki egun horretako oroitzapenik?

ELKARRIZKETA

MIKEL BERGARA/BESAIDE MENDI ELKARTEKO KIDEA

"Gero eta jende gehiago joaten da mendi tontorrera eskiekin"

XABIER URZELAI

Hogeita bat urteko gazte honek mendiarekin harreman zuzena dauka. Ez bada oinez, eskiatzen izango da, edo bestela eskalatzen, baina kontua mendian ibiltzea da. Besaide Mendi Elkarte kidea izan behar zen derrigor.

Zein ezberdintasun dago eski alpinoaren eta mendi eskia- ren artean?

Eski alpinoa eskiatzeko pistetan egiten da. Aldapak jaitea da helburua, eta gora igotzeko teleaulki, arraste eta bestelakoak erabiltzen dira. Mendi eskia, bestalde, izenak dioen moduan, mendia eskiekin igo eta jaitea da. Orain arte mendietara oinez igotzen ginen, baina azkenaldian jende asko igotzen da eskiekin. Desberdintasun nabarmenena igotzerakoan izaten da.

Eski alpinoa egiten duenari gomendatuko zenioke mendiko eskia egitea?

Ez da gauza bera, baina mendia eta eskia atsegin dituenari gomendatuko nioke kirol hori. Hala ere, materiala erosten hasi aurretik, hobe da hasieran, behintzat, errentan hartzea, eta gustuko izanez gero, orduan erosi. Bestalde, alpinoko eskiekin ezin zaitzke mendian ibili, baina mendiko eskiekin bai egin daiteke alpinoa. Hala ere, mendiko eskiak hartzekotan mendira joateko izan dadila. Pistetan ibiltzeko bakarrik, hobe alpinoko eskiak hartzea.

Mendi eskia egiteko beharrezkoa da aurretik pistetan ibiltzea?

Beharrezkoa ez dakit, baina gomendagarria bai. Hobe da pistetan eskiatzen ikastea, elurra egoera onean egoten da-eta. Mendian ikastea zailagoa da, elurra zapaldu gabe egoten delako, eta bertan eskiatzea zailagoa izaten da. Mendira eskiatzen jakin gabe joanez gero, gozatu baino areago, sufritu egiten da.

Lehen, eski alpinoa beste- rik ez zegoen. Orain, beste moda- litate batzuk ere badaude.

Bai, geroago eta jende gehiago ikusten da mendi tontoretan eskiekin. Horrez gain, pistetan ere askotan ikusten da zeharkaldiko eskiekin eskiatzen duen jendea. Horrek esan nahi du jende hori gero mendira ere joaten dela eskiatzera.

Joan den asteburuan beste mendi irteera bat izan duzue, urteko bigarrena. Zenbat lagun joan zarete?

Hogeita hamar bat lagun izan ginen, eta, egia esan, mendiko eskia egiteko irteerek harrera ona izaten dute.

Kirolaren beste aurpegiari



ARRASATE PRESS

*"Mendi eskia egiteko,
lehenago pistetan
ibiltzea komeni da,
mendian askoz
zailagoa da-eta"*

so eginez, mendiko eskiak badauka arriskurik?

Azken baten, mendian egiten diren kirol guztiek dute arriskuren bat. Egin behar dena da arrisku hori kontrolatzen jakin. Jakin zein eguraldi egingo duen, elur-jauzien berri izan, eta abar. Gero, betiko arriskuak daude, erorketak...

Zelan kontrolatzen dituzue elur-jauziak?

Pirinioetan, zorionez, geroago eta informazio gehiago dago. Mendi aterpeetan informazioa egoten da, interneten ere elurraren egoera azaltzen da...

Zuek egiten dituzuen ibilbi- deak aurretik prestatzen ditu- zue?

Normalean aurretik prestatzen dugu ibilbidea, baina aurre-

*"Mendian beti dago
arriskuren bat.
Arrisku hori
kontrolatzen ikasi
behar da"*

ko asteburuan, adibidez, elur gutxi zegoela-eta, ibilbidea aldatu egin behar izan genuen.

Zer-nolako denboraldia daramazue?

Nahiko txarra. Ondo hasi zen denboraldia, elur askorekin, baina ordutik hona ez du elur askorik egin. Ea egiten duen.

Zeharkaldiko mendi eskia egiterakoan zer eramaten du Mikelek?

Arroparik ez dadila falta. Negua da, eta Pirinioetan gaude. Gore Tex-eko fraka eta txamarra, eskularruak, txapela, eguzkitako betaurrekoak, krema, ura, janaria. Horrez gain, kranpoiak, pioleta eta arva ere bai. Elur-jauziak harrapatuz gero, non dagoen jakiteko tresna.

XAKEA

Arrasateko taldea Gipuzkoako Ligako txapel- duna izan daiteke oraingo asteburuan

Gipuzkoako Ligan diharduen Arrasateko taldea denboraldi bikaina egiten ari da aurtan, eta txapelketa amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direnean, arrasatearrak lehenak dira, 31.5 punturekin. Sailkapeneko bigarrenak zarauztarrak dira, 24.5 punturekin. Hor-taz, oraingo asteburuan puntuak lortuz gero, Arrasateko xakelariak Gipuzkoako Ligako txapeliduna izan daitezke.

Etxeko xakelariak Lazkaoen kontra jokatu beharko dute oraingo zapatuan, arrasaldeko lauretatik aurrera, Arrasaten bertan. Beheko mailetak bi taldeak ere igoera faseko partiduak jokatzen ari dira eta Arrasate B taldeak Gipuzkoako Ligara igotzeko aukera asko ditu.

ATLETISMOA

Arrasateko atletak Lasarten jokatuko den Donostiako Krosean izango dira

Oraingo asteburuan, Donostiako Krose jokatuko da Lasarten, eta nazioarteko txapelketa horretan lasterkari asko elkartuko dira, bai Estatukoak bai atzeritarrak. Hamar mila metroko lasterketa horretan Javier Mentxaka arrasatearra izango da. Baina ez da arrasatear bakarrik izango, izan ere, Markel Blanco gaztea ere hantxe izango da, infantil mailan.

Markel Blanco atleta gaztea Elgoibarko krosean izan zen joan den astean. Mintzetako zelaietan egin zen krosak 2.400 metro izan zituen, eta atleta arrasatearra, sekulako esprint bati esker, lehen iritsi zen helmugara. Gaztea bada ere, etorkizunean kontuan hartzeko korrikalaria izango da Markel Blanco.

KARATEA

Iban Galán karateka arrasatearra Espainiako Txapelketan izango da Euskal Selektzioarekin

Oraingo asteburuan, Espainiako Karate Txapelketa jokatuko da Albaceten, eta karateka arrasatear bat 17 urtetik beherakoekin lehiatuko da. Iban Galán Euskadiko txapelidun izan berri da, eta hori eta aukeraketetako probetan eginiko lanari esker, Espainiako Txapelketan izateko txartela eskuratu du.

Iban Galánek 16 urte ditu, eta dagoeneko gerriko beltza du. Hark ere ez zuen espero Espainiako Txapelketan izango zenik, eta gauzak zelan irten diren ikusita, oso pozik dago lortutako helburuekin. Hautaketarako probak Arrasaten izan ziren orain dela bi asteburu, eta han eginiko lanari esker, Espainiako Txapelketan izango da.

ERRUGBIA

Bihar arratsaldean ikuskizun ederra izango da Garagartzan, Elorrio izango da-eta aurkaria

Arrasateko Errugbi Taldeak Elorrioren bisita izango du bihar arratsaldean. Arrasatek eta Elorriok indarrak neurtzen dituztenean partidu erakargarriak izaten dira, elkar ondo ezagutzen dute-eta. Bizkaitarrak Arrasatekoen bolada onarekin amaitzeko asmoz etorriko dira, eta etxeok goiko postuetan jarraitzeko izerdituko dute.

Arrasatearrek joan den astean 5-20 irabazi zuten Durangoren zelaietan. Lehenengo zatian mondragoetarrak goiko postuetan zergatik dauden argi erakutsi zuten, eta bigarren zatian partiduari eutsi besterik ez zuten egin. Ea bihar ere etxeok puntuei ondo eusten dieten.

PILOTA

Gaur arratsaldean, Udaberriko Txapelketako lehenengo partiduak jokatuko dira Uarkapen

Gaur, egubakoitza, arrasaldeko zazpietatik aurrera, Arrasateko pilotariak Udaberriko Txapelketako lehenengo partiduak jokatuko dituzte Uarkape pilotalekuan. Aurkariak Ormaiztegi pilotariak izango dira, eta gazte mailako eta senior mailako pilotariak izango dira aurrez aurre.

Martitzenean, bestalde, Debarroko Txapelketako pilota partiduak izan ziren. Arrasateko pilotariak Bergaran jokatu zuten, bertako pilotarien kontra. Kadetetan, Jiménezek eta Gonzalok 22-8 galdu zuten Bergarako bikotearen kontra. Gazte mailan, Agirre eta Uribarren, beste behin, bikain aritu ziren, eta 4-22 nagusitu ziren; eta, azkenik, seniorretan, Zugasti eta Lazkano, ahaleginu baziren ere, 22-16 galdu zuten.

Kenci Arrasate igoera faseko lehen puntuen bila joango da Beasainera

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak igoera faseko bigarren partidua jokatu zuen Axa Getxo taldearen aurka, eta etxekoek itxura polita erakutsi bazuten ere, kanpotarrak esperientziaz baliatu ziren puntuak eskuratzeko. Ea Beasaindik igoera faseko lehen puntuekin etortzen diren.

Zapatu arratsaldean jokatu zuen Iker Zubiriak gidatzen duen Kenci Arrasatek Axa Getxo taldearen kontra. Partidua etxean jokatu zuen, Iturripen, eta puntuak Arrasatekoendako izango zirela uste bazen ere, kanpotarrek irabazi zuten partidua.

Hasiera-hasieratik, bi taldeek erritmo biziz jokatu zuten, eta etxekoek kanpoko jaurtiketetan erakutsitako abileziak markagailua Arrasatekoen alde jarri zuten hasiera baten. Lehenengo laurdenaren bukaeran arrasatearrak aurretik ziren, eta bigarren laurdeneko hasierako hamar minutuak ikusgarriak izan ziren. Etxekoek denboraldi osoko joko onena egin zuten hamar minutu horietan, baina hamar minutu ez ziren nahiko izan.

Hirugarren laurdenean gauzek txarrerara egin zuten; bizkai-



Kenci Arrasateko jokalariek, Urdanetaren kontra jokatutako partiduan.

tarrek gora egin zuten, eta aldea murriztea lortu zuten. Azken laurdenean kanpotarrek hiruko jaurtiketetan abilezia handia erakutsi zuten, eta aurre hartu zuten; gauzak horrela, etxekoek ezin izan zuten ezer egin. Azkenean, 86-89 irabazi zuen Axa Getxo taldeak.

ITXURA POLITA, BAINA...

Arrasateko saskibaloitza taldeak igoera faseko hirugarren partidua

jokatuko du oraingo asteburuan, eta Beasaindik esku hutsik ez bueltatzeko ahaleginak egingo dituzte jokalariek. Igoera fasea jokatzea lortuta, azken bi partiduetan etxekoek ez dute zorte handirik izan, eta, arrazoi bategatik edo beste bategatik, etxekoak esku hutsik bueltatu dira.


Bi partiduetan argi geratu da arrasatearrek garaipena eskura izan dutela, hortaz, partiduei eusten ahaleginu beharko dira.

FOTOKIROLA



Eskubaloiko bigarren taldeak, ezin

Senior mailako bigarren taldeak ezin izan zuen Legazpiko Hegialde taldearekin. Partidua Musakolan jokatu zen, eta kanpotarrak 16-22 nagusitu ziren. Arrasate Almenek, bestalde, 27-32 irabazi zion Tolosari. Arrasatearrek gogotik egin behar izan zuten lan partidua aurrera ateratzeko, baina markagailuan lortutako aldeari partidua amaitu arte eutsi ahal izan zioten. Garaipen horrekin, Arrasateko eskubaloitza taldeak igoera fasea eskura du oraindik. /XABIER URZELAI



Ate + leihoak



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Baserriko Argia izeneko proiektuaren aldeko erakusketa ikusgai egon da dagoeneko Gipuzkoako zenbait herritan.

Baserriko Argia proiektuaren erakusketa ibiltaria

Emakume baserritarren aldeko erakusketa Arrasaten izango da

IKER BARANDIARAN

Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL), emakumeek baserrietan egindako lana errekonozitzeko, eskultura handi bat jarri nahi du. Eskultura finantzatzeko eta emakumeen problematika ezagutarazteko, erakusketa antolatu dute.

Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL) 1991. urtean jaio zen, emakume baserritarren duen errekonozimendu eza eta, horren ondorioz, emakume horiek izaten duten egoera kaskarra salatze asmoz. Orain arte, emakume horien egoera hobetzeko eta arazoak ezagutzera emateko hainbat ekimen aurrera eramane dituzte.

Azkenaldian, berriz, proiektu berezi batekin buru-belarri dabilta: hain zuzen ere, Baserriko Argia izeneko proiektuarekin. Duela pare bat urte EBELEN batzar baten emakume baserritarren lanaren errekonozimendu gisa eskultura bat egiteko ideia jaio zen. Ideia hori jorrazteko asmotan, Juan Gorriti artista araztarrarekin harremanetan jarri ziren. Gorriti eskulturaren zirriborro batzuk egiteko prest agertu zen, azal dutako ideia hobeto plazaratzeko asmoz.

Proiektuak martxa hartuta, 2000ko martxoaren 8an, Donostiako Lugaritz kultura etxean, Gorriti egindako zirriborroetatik bat aukeratu zuten. Hori lortzeko, ehun eta berrogeita bost emakume baserritarrek

botoa eman eta parte hartzaileen %85ek zirriborro jakin hori aukeratu zuten: Baserriko Argia.

Behin eskultura izango zeneko zirriborroa aukeratu, eskultura bera finantzatzeko baliabideak bilatzen hasi ziren. Horretarako, hainbat prozedura eta pauso ematen dabilta EBELekoak.

FINANTZAZIOA LORTZEKO BALIABIDEAK
Gauzak horrela, lehenik eta behin, Gorriti eskultura handia izango denaren serieak egiteko eskatu, eta serieko ale bakoitzaren liburu lagungarri bana prestatu dute.

Batez ere emakumeen aldeko ekimena izanik, Emakunderi laguntza eskatu zioten, eta erakunde horrek dagoeneko babesa eman die.

Bestetik, hainbat finantza erakunderi publizitatearen truke laguntza eskatzen dihardute, eta hitzaldi zein antzerkiak ere antolatu izan dituzte.

Horiez gain, zirriborroak eta serieak erakusgai jarri erakusketa ibiltaria antolatu dute, bide batez eskultura handiaren finantzabidea bideratuz eta, noski, aldi berean, ekimena gizarteratu eta emakume baserritarren problematika jende artean zabalduz.

Izan ere, erakusketa berezi hori dagoeneko ikusgai izan da Tolosan eta Azpeitian. Urtarrilaren 28tik otsailaren 15era bitartean, berriz, Mondragoen izango dugu, Monterron jauregian, hain zuzen ere. Gerora, Zarautzik eta Donostiako zenbait auzotako kultura etxeetatik igaro eta

beste herrialde batzuetara ere salto egingo du.

URTEETAKO IBILBIDEA

Erakusketa ibiltaria 2002. urteko abendura arte egongo da ikusgai. Helburua bete eta finantzazio nahikoa lortuz gero, eskultura handia egin eta ziuurtenik Zizurkilgo herrian kokatuko litzateke, ahal bezain laster.

Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL) 1991. urtean sortu zen, emakume baserritar talde baten ekimenez.

Hasieratik helburu jakin batzuk zehaztu zituzten. Hain zuzen ere, emakume baserritarren arteko harremanak bultzatzea euren egoeraz eta gabeziez jabe gaitzen; emakume baserritarren egoera hobe dadin jarduera ekonomiko eta sozialak bultzatzea, nekazari sektorean ere berdintasuna lortzeko bidean; erabakiak hartzen diren guneean emakume baserritarren partehartzea bultzatu, eta, azkenik, botere publikoan aurrean emakume baserritarren eskubideak defendatzea.

Urte hauetan guztietan hainbat arlo landu dituzte. Emakume horien Gizarte Segurantzaren bermatzea, langile errekonozimendua izan dezaten; emakume baserritarrendako babes juridikoa lortu izana eta lanbiderako eta oinarrizko heziketa eskaintzea edo ahalbideratzea, besteak beste.

Bestalde, EBELekoek garrantzi handia ematen diote, era berean, baserrietan etxeko lanen ardurak gizonen eta emakumeen artean bana ditzaten.

KULTURAPILULAK

Arrasateko euskalgintzaren kongresua egingo dute bihar Udalako Ingurugiro Eskolan


Arrasateko Euskararen Plan Estrategikoa dela-eta, Arrasateko euskalgintza osatzen duten hamalau taldeak buru-belarri dabilta hausnarketa lanetan. Horrexegatik, zapatu honetan kongresu berezia egingo dute Udalako Ingurugiro Eskolan, egun osoan Goizean goiz elkartu, talde bakoitzak banan-banan bere ikuspegiak azaldu, elkarrekin bazkaldu, eta arratsaldean goizeko saioari buruzko iritzi, komentario eta bestelakoak bateratuko dituzte. Zapatuko egina beharrekoaren lehenengo zatia izango da.

Arrasateko Konekta Zaitetz ordenagailu guneak hilabete egin du dagoeneko

Duela hilabete zabaldu zuten Konekta Zaitetz gunea Uarkapen pilotalekuan. Uarkapen bertan bi ordenagailu gela jarri zituzten eta helburua jendea interneten trebatzea da. Horretarako, duela ikastaroak jarri zituzten debagoiendarren eskura. Oso harremana izan du zerbitzu horrek, eta KZ gunearen arduradunen esanetan, sexu eta adin guztietako debagoiendarrak hurreratzen dabilta Uarkapen egiten diren ikastaroetara.

Virginia Imazek ipuinek duten garrantziari buruz berba egingo du San Viator Txikin

Datorren martitzenean, urtarrilaren 29an, 18:00etan, Virginia Imazek ipuinei buruzko berbaldia egingo du Arizmendiko San Viator Txikin, areto berrian. Virginia Imazek ibilbide luzea dauka ipuin kontalari, pailazo eta antzeko lanetan, tartean zirkuan ere ibilita dago-eta. Martitzenean egingo duen berbaldia Arizmendiko Haur Hezkuntza taldeak antolatu du eta herriko edozein gurasori zuzenduta dago. Virginiak ipuinek duten garrantzia, izan denak erabilpena eta zer-nolako ipuin motak dauden azalduko du San Viator Txikira gerturatzen diren interesatuei.



Lanean fin-fin harrapatu genituen Margusino eta Egidazu.

Inauterietako 'Pepi' sardina prestatzen dabil SUDC

IKER BARANDIARAN

Aurreko urteetan bezalaxe, aratuste-martitzenean, otsailaren 12an, gaueko hamabietan, sardina erreko dute herriko plazan, inauterietan agur esateko.

Sardina erre ahal izateko, noski, egin behar izaten da. Eta, aurrean ere, SUDCeko partaide batzuek lan hori hartu dute. Azkeneko bi asteetan, Crisanto Margusino eta Jesus Mari Egidazu buru-belarri dabilta aratuste sardina, Pepi, ondo prestatzen. Dagoeneko bosgarren aldian da sardina egiten dutena

eta, noski, eskua ere badu horretan.

Auratuste sardina orain ere egin duten luzeena da, ia zehazki metro luze da eta barruan hobe bost metroko bolbora traka eta gasolina sartzeko hodia dauka matza. Horrez gain, gris koloreko izango du, baina distira emateko dioten hautsak botako dizkion. Aratuste-martitzenean, sardina erreko dute, baina Margusino eta Egidazu ez die partaiderik ematen, horretan lan handirik egin badute ere. "Batzuek lan egiten dugu, beste batzuek partaidea egin dezaten", diote.

E, TXO!

GUREGAIK/ 'PIERCING'-A

'Piercing'-a azken urteotako fenomeno hedatuenetakoa da

IRAITZ AGIRRE


Azken urteotan, modu ikusgarriarriarri ugaritu da gorputzeko edozein ataletan zintzilikario bat apaingarri gisa jartzeko moda. Asko dira aukerak, eta gehiago *piercing*-a egitera animatzen diren gazteak.

Gorputzeko hainbat ataletan apaingarriak zintzilikatu edo zuloak egitea ez da gaur egungo moda hutsa. Antzinatik, tribu, kultura eta zibilizazio zenbaitek hori egiteko ohitura izan dute.

Hala ere, azken urteotan, mundu osoan hedatu den fenomeno soziala da *piercing*-a. Imajina daitekeen ia leku guztietan jar daitezke, mingainetik hasi eta zilborreraino, sudurretik mingai-

Gorputzeko atal gehientsuenetan ipin daiteke horietako zintzilikario bat

neraino. Eskaerak modu askotakoak izan ohi diren arren, jendeak gehienbat aurpegian ipintzea erabakitzen du. Prezioak zuloa non egiten den arabera dira, gutxi gorabehera 25 eurotik hasi eta zifra pentsaezinetaraino. Arrasaten lauzpabost lekutan egin daitezke horrelakoak, eta



Gaur egun, gorputzeko edozein ataletan jartzen dituzte *piercing*-ak.

horietan guztietan higie-neurriak bermatzen dira. Adin guztietako pertsonak egin ditzakete *piercing*-ak, nahiz eta gaztetxoek gurasoan baimena eduki behar duten.

GAZTETXETIK PRESOK BISITAZERA

AGAKOkoek Amaia Arrieta, Premin Samperro eta Txus Goikoetxea preso mondragoetarrek Alcala Meço eta Aranjuez presondegietara bisitatze-ra joateko txangoa prestatu dute. Hitzordua bihar izango da, zapatua, eta autobusa gaueko hamabietan irtengo da. Txartela 2.000 pezetan eskura daiteke, eta Irati tabernan edo gaztetxean eman dezakezue izena.

TXATXILI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdik urtean antolatzen dituen ekintzetarako begirale taldea osatu gura du. Interesatuak jo dezatela lehenbailehen elkarteak Pablo Uranga kaleko 4.enean duen egoitzara edo dei dezatela 943-795446 telefonora.

GAZTEENDAKO WEB ORRIALDEA

Gipuzkoako Gazteria Sailak web orrialdea estreinatu du. Hau da helbidea: www.gipuzkoa.net/gazteria, hain zuzen ere. Gazteriarekin lotutako hainbat gairi buruzko informazioa jaso dezakezue: aterpetxeen gainekoa, musikari buruzkoa, dirulaguntzen ingurukoa... Baita Gazteria Zerbitzuaren plan estrategikoaren gainekoa ere.

MUSIKA ESKAINTZA GAZTETXEAN

Joan den asteburuan gaztetxean egindako kontzertuak harrera ona izan zuen. Batetik, Musakolako Spank[®] taldeak emanaldi polita egin zuen; bestetik, Irungo Izaera taldeak oso eskaintza orijinala eskaini zuen, eta Hondarribiako Lifekoek ia ikusle guztiak dantzan jarri zituen. Oraingo asteburuan, ordea, ez da emanaldirik izango.

LOTSABARIK/ Jone Etxebarria

"Esamesengatik da hain zaila ligatzea"

IRATXE ESNAOLA

Jonek Gasteizen dihardu Gizarte Lanetako ikasketak egiten. Haren zaletasun nagusia dantzan egitea da, eta asteburu osoa diskoteketan igaroko luke, haren lagunak konbentzitzea lortuko balu.

• Txikitari, zer izan gura zenuen?

Oso txikitatik, telebistan edo zineman jardutea gura izan dut. Aktore edo dantzari aritzea ez legoke batere txarto.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik hogeitaurte?

Ez dakit hogeitaurte barru non

ibiliko naizen. Hala ere, espero dut nik gustuko dudan lanpostu baten, senarrarekin eta seme-alabekin. Eta Arrasatetik kanpo.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Hamazortzi-hogei urte oso edade ona dela uste dut.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Batez ere, familiari, baina baita lagunei ere. Nire bizitzan sekulako garrantzia dute lagunek.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Ezer gutxi, nahiz eta egoera jakin batzuetan beste inork baino okerrago pasatzen dudan.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Noizbait bakarrik geratzeak

eta, orokorrean, Euskal Herriko egoerak.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Etxebizitza merkeagoak, gazteendako lokalak eta diskoteka gehiago.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Arrasaten ligatzen da?

Lotsagarria da. Jendea hain ahozabala ez balitz, hainbeste kritikatu ez balu, errazagoa izango litzateke. Hala ere, jendearen partetik gogorik ez da falta.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Batez ere, aurpegiari eta irribarreari.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Gizarte Lana • ZALETASUNAK: Musika eta dantza modernoa • LIBURU BAT: 'Los puentes de Mádison' • FILM BAT: 'La vida es bella' • MUSIKA TALDEA: Scorpia diskotekako edozein disko • KIROL TALDEA: Ez naiz oso kirolzalea

PUB HAIZEA

arrasate

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

LANDALUZE

HARATEGIA • URDAITEGIA

ESPEZIALITATEA: ETXKO ODOLOSTEAK

ITURBIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86

ARRASATE

BEHEKO AKADEMIATIK

Nerea Belategi

BASTIDA AKADEMIXAKUE

XABIER URZELAI

Mondraguetarra da, baiñe ezkondu zanetik Gasteizen bizi da. Eskola partikularrak emuten zittuen lehen, eta 1993en, Bastida Akademixan hasi zan lanien. Oin administraziñuen egitten dau lan, eta gustoraugo dago. Ez dauko ordutegi fijorik, eta alabie euki dauenez oin dala gutxi, asko eskertzen dau hori.

Amets bat?

Betikue, pakie.

Amets txar bat?

Momentu honetan, alabiari zeozer pasetie.

Egin dozun azken biajie?

Costa Ricara.

Txartel horixe, zeñei?

Danoi. Lehenago edo geruago, baiñe danok merezi dogu txartel horixe.

Eta gorrixie?

Politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Blade Runner / La canción de Dorotea / Musika lasaixe gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gabonetan zikin ikusi dot herrixe. Jaixengatik edo...

Eta lehendakari izengo bazitze?

Horrenbeste gauze dagoz...

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.


Senarra.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Iñaki Gabilondo.

Tranpan ibilttekotan nor baittekin, zeñekin?

Zeuri esango dutzut! Bueno, senarrak ez daki euskeraz, hortaz...



“Lehenago edo geruago, baiñe danok merezi dogu txartel horixe erakustie”

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Ez dot telebisiñorik ikusten / Hoy por hoy entzuten dot, SERen.

Zertan gastauko zeunke dirua?

Biajiek egitten.

Ze eukitten dozue gehixen, ikasle gaztiek ala nagusixek?

Ingenieritza ikesten dabitzenak, eta gaztiek, batez be. Pertsona nagusixek be badagoz.

Garestixe da suspendidutie?

Ez neuke esan biherko, baiñe bai.

Informatikako eskolak modan dagoz ala bihera da?

Bai, gaur egun, bihera da. Lanerako izen leike, edo beste edo-

“Gaur egun, ordenadorie ibiltten jakittie inportantie da, eta ez lanerako bakarrik”

zertarako be bai. Internet ibiltten jakittieko, adibidez.

Geruago eta kalabaza gehixago, zuondako hobeto, ala?

Ez egizu pentsau. Eskola asko ez die bat be rentabliek, dirulaguntzekin funtzionetan daue-eta.

Gaztiendako ze irakasgai izeten da gaxena??

Ingenieritzan, Fisika esango neuke, baiñe gaztietan danetik egoten da, ez dago irakasgai zehatzik.

Esaera zahar batek zera esaten euen: ‘Irakasle batek baiñe gose haundixague pasetan dot’.

Ez dot sekule entzun esaera hori, baiñe kasu askotan gauzie ez da larregi aldatu. Profesioñe honetan be danetik dago

NIREBIDAIAHURA/ Xabier Elgezabal

Australia, Singapur, Malasia, Indonesia, Tailandia, Tasmania, Zeelanda Berria / 2001ean

Aurreko alean Asia aldean hilabete pasatxoko operaldia egin eta gero, ostera ere Australiaro utzi genuen Xabier Elgezabal. Sydney ondo ezagutzen bazuen ere, Australia hiri hori baino askoz gehiago da, eta lurralde hori deskubritzeko asmoarekin, hiru lagunek furgoneta bat erosi eta Australiaro zehar bidaiari egiteko asmoa agertu zuten. Furgonetagatik 350 mila peze-ta inguru ordaindu zituzten, 2.100 euro inguru, eta 15.000 kilometro izango zituen abentura hasi zuten. Sydneytik iparralderako bidea hartu zuten, kostaldea jarraituta. Geldiutetako baten, Airlie Beach-en, hain zuzen, Australiaro erre-pideak alde batera utzi eta, itsasoa lagun, belauntzi baten izan ziren hiru egunez. Zortzi hilabetean gustuko gauza asko egin daitezke, baina belauntzian eginiko bidaiara du gogoan Xabierrek. Urpean igeri egiteko aukera izan zuten eta, besteak beste, koralez, marrazoez, itsas dortokez, eta abarrez gozatu ahal izan zuten.




“Hiriburuetan dauden aborigenek alkohola dute lagun”

Basamortuan furgoneta izorrratu egin zitzaizen, eta kontontzeko dezente ordaindu behar izan zuten. Hiru hilabeteko bidaiara amaituta, Sydney-ra bueltatu ziren furgoneta saltzeko asmoz, eta kostata, baina azkenean diru apur bat eskuratu zuten. Aborigenen lurraldea ezagututa, Xabierrek eta Aretxabaletako lagunak Tasmaniarako bidea hartu zuten, eta hantxe banandu egin ziren. Xabierrek hainbat landetxetan egin zuen lan, eta jatekoa eta lo egiteko txokoa izaten zituen. Tasmanian hilabete egon eta gero, Melbournarako bidea hartu zuten, handik Zeelanda Berrira joateko asmoa zuen-eta. Oraindik bide luzea geratzen da, eta badago zer bisitatu. Datoren astean jarraituko du.

“Publizitatea egiteko bakarrik erabiltzen dituzte”

XABIER URZELAI



Australiaro itzulian egiten ateratako argazkia.



Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua

Promotoreak baimendutako agentzia bakarra

Udalatx
InmobiliariA

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.
ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebédun hizkiak

ZAHARREN ETXETIK



XABIER URZELAI

Hirugarren adineko asko bere kasa bizi direnez, oso komenigarria da noizbehinka osasun azterketak egitea.

Osasun azterketak eta, ahal den neurrian, kirola egitea, aproposena

IKER BARANDIARAN

Roman Balantzategi medikua bigarren aldiz etorri da Arrasate Irratira, eta guk ARRASATE PRESSen jaso dugu hark esandakoa. Aurrez iragarri genuen bezala, aste honetan hirugarren adineko gaitzez eta osasun azterketez berba egin digu.

Romanek esandakoaren arabera, hirugarren adinean edo zahartzaroan gaixotasun nagusi batzuk nabarmen ditzakegu: bateatik, erreuma edo hezurretako gaitzak; bestetik, bihotzaren eta biriken arazoak, batez ere, bronkioen arazoak azpimarratuz. Gainerakoak, berriz, honako hauek dira: burua edo zentzua galtzea, hau da, geroago eta sarriago gertatzen ari diren demenztziak; ikusi eta entzuteko arazoak eta diabetesa, besteak beste; emakumeen kasuan, berriz, menopausia eta horrek eragiten duen kaltzio hutsune handia.

Osasun azterketei dagokienez, Romanek garrantzi handia eman die horiek egiteari, pertso-

na nagusiak berak zelan dagoen jakiteak autonomia propioa izatea berma dezaketelako. Ezagun da, gainera, zahar gehienak bakarrik bizi direla eta, gainera, senideek ez dutela haiek zaintzeko astirik izaten, edo denbora nahikorik hartzen.

Romanek azaldutakoaren ara-

Mugitzea oso garrantzitsua da

Romanek aste honetan azaldutako kontuen artean, zera nabarmen genezake: zahar asko bakarrik bizi dira, eta, senitarteko batzuek zama direnez, osasun azterketak sarri egin behar dituzte. Horrez gain, ahal duten neurrian, mugitu egin behar dira -paseatu, eta abar.

Datorren astean, kirolaz eta mugitzeaz berba egingo du.

bera, 40 urtetik aurrera, biztanleen %90ek izan dezakete artrosi apur bat. Beraz, ahal den lasterren begiratzea aholkatzen du.

MENOPAUSIA ETA DEMENTZIAK

Menopausiaren kasuan, emakume askok hezurretan kaltzioa galtzen dute eta horrek hezurak errazago apurtzeko arriskua areagotzen du. Romanen arabera, kalte horiek arintzeko, aza, azalorea, arrain urdina eta eguneko litro laurden esne hartzea ona da.

Bestalde, orokorrean, ahal den neurrian, tabakoari, alkoholari eta kafeari bizkarra ematea eta gelditu beharrean mugitzea aholkatzen du Romanek. "Paseatzea, kirola egitea, dena delakoa egitea oso garrantzitsua da osasunerako".

Demenstziei edo burua galtzeari garrantzi handia ematen die Romanek. "Geroago eta alzheimer tasa handiagoak daude. Eta gaixo horien zaindarien garrantzia azpimarratuko nuke. Bizitza horren alde ematen dute, eta ez daukate eurentzako astirik". Azterketak egitea aholkatzen du.

LABUR

Batzarrak egiten dihardute Musakolako zahar etxeek joan den aspaldian

Musakolako zahar etxeek bazkideek ezohiko batzarra egin zuten atzo euren egoitzan. Gai bakarrik aztertu zuten: Udalak egoitzan ezarri nahi duen arautegia. Horren aurrean zer egin aztertu zuten, eta bazkide guztiei ustezko aldaketak jakinarazi zizkieten.

Bestalde, otsail bukaeran, urteroko batzar orokorra egingo dute egoitzan bertan: iazko erreposoa eta aurtengo aurrekontuak.

Endokrinologia ikuskapenak egiteko aukera izango da datorren martitzenean Seberren

Roman Balantzategi medikuaren aholkuak kontuan hartzea komeni dela eta, beste iradokizun bat egingo dizuegu gaurkoan. Hain zuzen ere, datorren martitzenean, urtarrilaren 29an, arratsaldean, Lagun Aro Aseguruek eta Sanitas-ek endokrinologia arloko ikuskapenak egiteko unitate mugikorra jarriko dute Seber Altuben. Edozeinek egin ahal izango ditu ikuskapenak.

ZAHARREN AHOTIK

JOSE RAMON PETREÑAS

MUSAKOLAKO ERRETIRATUEN ETXeko IDAZKARIA

Jose Ramon 1936an jaio zen, Sestaon. Ama alargundu eta Jose Ramonek zortzi urte zituenean Aramaiora jo zuten biek, familiakoengana.



Zer-nolako aldaketa izan zen Sestaotik Aramaiora bizi izatera joatea?

Bueno, Sestaon bizi nintzenean oso gaztetxoa nintzen. Oso bitxia izan zen. Mondragoetik Aramaiora lehengusuarekin Jauregi enpresako autobusean nindoala, nire bizitzan lehengo aldiz euskaraz berba egiten entzun nuen. Mundu guztia euskaraz hizketan zihoan, eta nik zera pentsatu nuen: "Baina, zer da hau?". "Nora nator?".

Baina, gerora, ederto moldatuko zinen, ezta?

Bai, han eskolan hasi nintzen eta han ez zen euskaraz berba egiten, baina Aramaion, kalean, mundu guztiak berba egiten zuen. Nik ere, gerora, ikasi nuen, noski. Aipatzekoa da euskal dantza ikasten hasi nintzela eta gero halako talde bat sortu genuela. Gustura ibili ginen hainbat herritan dan-

tzan. Hamazortzi urte nituela, Mondragoera etorri nintzen, Aprendizen Eskolara. Hogei urterekin soldadutzara joan nintzen, Gasteizera. Asteburero joaten nintzen Aramaiora.

Eta azkenean, Arrasatera jo zenuen?

Bai, 1963an, aramaioar batekin ezkondu eta Arrasatera etorri ginen. Cerrajeran lan egiten hasi nintzen eta enpresak etxea eskaini zidan Musakolan. Han bizi naiz orduetik hona. 56 urterekin erretiratu nintzen. Gero, 60 urterekin, Musakolako erretiratuen etxean idazkari hasi nintzen.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ALDEDI

MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Yagoba

Larrañaga Oregi ARKITEKTO TEKNIKO

Obra zuzendaritza.

Eraberritze eta birgaitze proiektuak.

Informe teknikoak eta jarduera espedienteak.

Arrasate pasealekua 13, behea
Tel./Faxe: 943 79 26 86 ARRASATE



ARÉTXABAETA
Iker Aizkorbe
Urtarrilaren 22an, 22 urte.
Zorionak! Eider, Nerea eta Alaitz.



ARRASATE
Joseba Arejolaleiba
Urtarrilaren 25ean, 41 urte.
Zorionak, zure nesken partetik. Miren, Amaia eta Olatz.



ARRASATE
Unai Okina
Urtarrilaren 26an, 11 urte.
Zorionak! Miren, Amaia eta etxeakoak.



ARRASATE
Mainer García
Urtarrilaren 26an, 11 urte.
Zorionak! Miren, Amaia eta Olatz.



ARRASATE
Paula Heriz
Urtarrilaren 16an, 12 urte.
Zorionak, preixioxa, familiako partetik.



ARRASATE
Saioa Belastegi
Urtarrilaren 26an, 10 urte.
Zorionak, etxeako partetik.



ARRASATE
Xabier Belastegi
Urtarrilaren 23an, 11 urte.
Zorionak, etxeako partetik.



ARRASATE
Eli Amozarrain
Urtarrilaren 24an, 52 urte.
Zorionak, etxeako partetik!



ARRASATE
Alex Arana
Urtarrilaren 29an, 4 urte.
Zorionak, Txatxiliko lagun-txoen partetik!



ARRASATE
Ane Maiztegi
Urtarrilaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, Txatxiliko lagun-txoen partetik!



ARRASATE
Alazne Etxabe
Urtarrilaren 26an, 4 urte.
Zorionak, Txatxiliko lagun-txoen partetik!



ARRASATE
Mikel Bolinaga
Urtarrilaren 29an, 6 urte.
Zorionak, Txatxiliko lagun-txoen partetik!



ARRASATE
Mime Errasti
Urtarrilaren 31n, 6 urte.
Zorionak! Txatxiliko lagun-txoak eta familiakoak.



ARRASATE
Juanma Berrueta
Urtarrilaren 23an, urtebetetza. Zorionak, artista!



ARAMAIO
Sara Del Campo
Urtarrilaren 26an, 5 urte.
Zorionak! Aita, ama, "abuelo" eta amama.



AZPEITIA
Urko Valverde.com
Urtarrilaren 22an, 25 urte.
Zorionak, lankide guztien partetik!



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.

Hurrengo zenbakian, **urtarrilaren 26tik 31ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

Argazkiak martitzera arte jasoko dira **ARRASATE PRESSEko** egoitzan.

NOBEDADEA!



AMAGARA

Erdiko kale, 54 • ARRASATE • 943 79 09 09

ENDOMASAJEA ETA ULTRASOINUAK

Teknika biek in osaturiko METODO IKUSGARRIA

Zelulitisaren eta adipositate konkretuen aurkako tratamendu honek emaitza ezin hobeak lortzen ditu.

INFORMA ZAITEZ AMAGARAN KONPROMISO BARIK

Zelulitisaren kontrako metodo onena, ebakuntza egin barik





Telefono interesgarriak



Arrasateko Udala
Tel.: 943 79 09 00 · 943 77 09 00
Faxa: 943 79 80 56

Alkatetza	943 79 18 10
Amaia antzokia	943 79 20 53
Azoka	943 79 51 55
Biltegia	943 71 26 50
Emakumearen Saila	943 79 41 39
Gazteen informazio bulegoa	943 77 00 65
Hilerria	943 79 95 21
Iturbide egoitza	943 79 72 11
Iturripeko kiroldegia	943 77 09 95
Monterron kultura etxea	943 77 01 05
Musakolako kiroldegia	943 77 16 77
Sexologia bulegoa	943 79 80 10
Udal Euskaltegia	943 79 70 77
Udalako ingurugiro eskola	943 77 04 88
Udaltzaingoa	943 79 14 39
Uren zerbitzua	943 71 26 50



Aramaioko Udala
Tel.: 945 44 50 16
Faxa: 945 44 53 56

Kiroldegia	945 44 53 35
Kultura Etxea	945 44 53 74

Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a / 13. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Goikoerrota karobia, heriotza-zigorra eta Mairuelegorreta aztergai osoko bilkuran

UBANE MADERA

Aramaioko udalbatzarra eguaztenean batu zen hileroko bilkura egiteko. Zortzi gai zituzten lantzeko, besteak beste, Goikoerrota karobia zaharberitu dutenei esker ona adieraztea eta heriotza-zigorraren kontrako eta Pablo Ibarren aldeko mozioa.

Goikoerrotako karobia zaharberitu dutenei esker ona adieraztea izan da oraingo astean udalbatzarra landu duen gaietariko bat. Horrekin batera, Anzuotegi eta Latagain mendietako egurra saltzea ere aztertu zuen. Udala bera da pinudi horren jabea, eta pinuen egurra saltzeko zenbait saiakera egin eta gero, enkante publikoan saltzea proposatu du oraingo astean.

Heriotza-zigorrarekin eta Estatu Batuetan hiltzera zigortu duten Pablo Ibarrekin lotutako mozio bat ere landu zuen udalbatzarra. Oro har, bost puntutan, honakoa onartzea proposatu zuten: Pablo Ibarren familiari elkartasuna eta babesa adieraztea, Pablo Ibar berriro epaitzeko eskaera egitea, Pablo Ibarren alde egiten ari diren diru



Heriotza-zigorraren kontrako eta Pablo Ibarren aldeko mozioa landu zuen udalbatzarra.

ARTXIBOA

bilketan parte hartzea, heriotza-zigorra gaitzestea, eta landutako mozio hori beste erakunde batzuetara bidaltzea, haien elkartasuna eta babesa ere lortzeko.

Eta, urtarrileko batzarra bukatzeko, Mairuelegorreta Landa Lurralde Garapenerako Elkartearen ordezkaria izendatzea ere proposatu zuten. Iñaki Nafarrate

proposatu dute horretarako.


Edozelan ere, albiste hau idaztean, oraindik batzarra bukatu barik zegoen, hortaz, ez dakigu proposatutakoa onartu duten edo ez.

Goikoerrota zaharberitu dutenei esker ona adieraztea proposatu dute

Heriotza zigorra gaitzesteko eta Pablo Ibarren alde egiteko mozioa landu du udalbatzarra

Mairuelegorreta Landa Lurralde Garapenerako ordezkari posibleak. Iñaki Nafarrate

ATREBENTZIA/EZPADA/ Zelan ikusten duzu baserritarren egoera?




JOXE GORONAETA
Langilea



ANTONIO URIBARREN
Erretiratua



AITOR ELORTONDO
Langilea



JAVIER OSA
Langilea



IGOR AMASENE
Ikaslea

Egin behar dena da baserritarrei lagundu, eta arazoak erraztu, eta ez dena kendu. Eta bestela, aste-buruak pasatzeko egokitu edo... bestela txarto daude.

Nire ustez, baserritik bizi izateak ez du etorkizunik. Hemendik gutxira, desaburertu egingo da bizimodu hori.

Bizimodu mota bat galtzea beti da triste, baina ez badute irtenbiderik... Gainera, erosoago bizi bada behean... Horra jotzen dugun denok azkenean.

Kopurua jaitsi bada, zerbaitegatik izango da. Pena ematen du, jakina... Hori bai, baserritar gehiago egon beharko lirateke, eta hobeto lagunduta.

Lehen, baserritik lortzen zen guztia, baina orain, dendak egonda, ez dago horrenbeste beharrik. Pena ematen du, baina hau aurrera doa...

LABUR

Inauterietako mozorro lehiaketarako epea

Otsailaren 2a baino lehen eman behar da izena inauterietako mozorro lehiaketan parte hartzeko. Mozorrotzeko gara liburua izango da, eta banaka zein talde deka parte hartu ahal izango du lehiaketan (taldeak, gutxienez lau lagunekoak izan behar dira). Lehiakideak 17:00etan irteera dira, kiroldegitik, eta sariak 18:00etan banatuko dituzte. Sari sari emango dira: talde onenaren barruan, umeei eta 14 urtetik aurrerakoei (bina), eta orijinaltasunaren barruan, baina koad edo taldekakoa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Joan den asteburuan, neskek eta mutilek, biek hala biek, galdu egin zuten. Neskek 13-1 galdu zuten Caro Baro taldearen kontra; eta mutilek 2-1 Calasanz taldearen kontra. Oraingo asteburuan, mutilek bakarrik jokatuko dute. Neskek atsedean hartuko dute. Mutilen partidua zapatuan izango da, 12:00etan, Gasteizko Mese-detakoen kontra.

PALETA TXAPELKETA

Aurreko asteburuko emaitzak hauexek dira: Emilio eta Xabi 10, Barandiaran aita-semeak, 35; Amasene anaiak 23, Josu eta Julian 35; Oyanguren eta Garaita 35, Aspe anaiak, 11; eta Azurmendi eta Arriolabengoa 35, Arriolabengoa eta Abarrategi 29. Oraingo asteburuan, goizean bi partidu izango dira (09:00etan eta 10:00etan), eta arratsaldean beste bi (16:00etan eta 17:00etan).

ZINEA

Domekan, 17:00etan, *Billy Elliot* filma emango dute.

ANTZINAKO KONTUAK

Ikurrina legeztatu eta gero, ikurrina Udaletxeko balkoian

1977ko urtarrilaren 19a egun berezia izan zen Aramaion, beste herri askotan moduan. Ikurrina legeztatu zuten eta, lehenengo aldiz, udaletxeetako balkoietan ipini zuten.

Aramaion ere, urtarrilaren 19an, udalbatzarra batu egin zen ikurrina altxatu edo ez erabakitzeke. Aho batez hartu zuten baiezko erabakia zinegotziek. Sei lagun izan ziren: Jesus Zabala, Jose Antonio Aspe, Esteban Lasaga, Juan Jose Pol, Vicente Agirre eta Julian Untzueta alkatea. Azken hark ondo gogoratzen du zein bete-ta egon zen egun hartan herriko plaza: "Ikaragarria zen, jendea oso pozik zegoen, zahar eta gazte; baina zaharrek esaten zuten: 'Ordua zuan'. Hala, ikurrina altxatu genuen balkoian, *Gora Euskadi Askatuta* oihupean".

Urtarrilaren 1ean, Guardia Zibilak Tellamendiko gurutzea bota zuen, aramaioarrek han ikurrina ipini zutelako. Martxoan gurutzea berriz ipini zuten.



HERRIKO JOKOAK

PILOTAN

Pilotan jokatzeke edozein horma, kanposantuko zein elizako, zen ona. Ibarran kontzejupean jokatzen zuten gehienbat (Udaletxepean zegoen horman). Gaur egun, Ibarran, Frontoi-Kirolegian dago.

Pilota jokoetakò bat *Fueraka* edo *A Primis* deitzen zaiona dugu. Jokalarien kopurua ez zegoen mugatuta. Eskuz jo behar zen pilota eta lehenengo botean. Huts egin edo pilota txapapera botaz gero, hormaren kontra, zutik eta banku baten gainean, harmailan, ipini behar izaten zuten. Han zegoenak, pilota airean hartzeko eskubidea zuen, pilota hormara zihorean nahiz horma jo ondoren. Hartzen hasi eta huts egiten bazuen, ukitu eta hutsegite horri, *txuleta* deitzen zitzaion.

Pilota erdira joaten bazen eta parean tokatzen zirenetako inork jotzen ez bazuen, *pares* izaten zen. Hauek tanto bat egin behar zuten libratzeko eta bietako batek jo behar zuen pilota. Huts eginez gero, biak harmailara.

Aramaio joko eta jolasak

BOTEPRONTOAN/ Jesus Mari González · Etxaguen auzoko alkatea

"Jendeak ez du Etxaguendik hanka egingo"

Etxaguen auzora joko dugu oraingoan. Ibarratik lau kilometrora dago, Anboto mendira bidean, Orixol azpian. Lasaitasuna ei da Etxaguenen adierazgarriena, eta hangoak nahiko ondo bizi ei dira. Halaxe kontatu digu Jesus Mari González Etxebarriak, Etxaguengo Arane baserrian bizi den hango alkateak:

Noiztik auzo-alkate? Errepi-katuko duzu?

Urte pare bat dela; beste bi urterako izango da kargua. Eta ez daukat luzatzeko asmorik. **Non dago Etxaguen?** Orixol azpian. Gantzagarekin eta Arexolarekin egiten du muga. **Zenbat lagun bizi zarete han?** Jendea bizi den baserriak sei dira. Eta beste lau hutsik

daude. Guztira, 25 bat lagun biziko gara. **Gazte asko?** Gazte gutxi, oso gutxi: lau gara gazteak. **Baserritarrok baserritik bizi zarete?** Etxe bakarra bizi da baserritik. **Hortaz, zein etorkizun ikusten diozu auzoari?** Jendeak ez du hanka egingo. Etor-kizuna baduela uste dut. **Zer falta zaio?** Denetarik dugu. Uste dut ez zaigula ezer falta. **Orduan, primeran bizi zarete...** Bueno, primeran edo... Kontua da ez zaigula ezer garrantzitsurik falta. **Zer du Etxaguenek kanpotarrendako?** Lasaitasun galanta. **Zer eskatuko zenioke Udalari**



Etxaguenendako? Auzoa nahiko ondo dugu. Argindarra, saneamendua eta horrelakoak eginda daude, hortaz... **Berezitasunik Etxaguenen?** Errota bat dauka. 100 urte baino gehiago ditu, baina orain dela bospasei urte-edo berriro zuten. Gainera, gura dugunean erabili ahal dugu. Noizean behin jendea ikustera etortzen da eta, orduan, martxan ipintzen dugu. **Hortaz, errota baldin badu, erreka ere izango duzue?** Bai. Etxaguengo erreka; ez du beste izenik. Auzoaren erditik pasatzen da, lurpetik. Iturri bat ere badugu eta han ikusten da erreka zati bat, bestela ez da erreka ikusten. **Jaitsi izan da sekula Anbotoko Dama Etxaguenera?** Itxuraz, lehen oihu batzuk-edo entzuten zirela kontatzen dute...

Danona
KARROZERIAK
Konponketak txapa eta pintura
Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

UGARTE
Industria
hornidurak
San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

TTUKUN
• Fotokopiak
• Liburu jostekak
• Fotokopiak koloretan
• Planoen kopia
• Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ERRETRATU ZAHARRA

Etxarri-
Aranatzera
sartu ezinda

Joan den astean, ikurrina legeztatu eta balkoietan ipini zeneko hura kontatu genuen. Oraingo astean, berriz, apurtxo bat atzerago egitera goaz. Hain justu, hiru egun atzerago. Hortaz, urtarrilaren 16an atera zuten argazkia. Garai hartan, Euskal Herriko alkate abertzaleen artean batasuna zegoen, herriaren aldeko batasuna. Eta, orduko Espainiako Barne ministroa, Rodolfo Martín Villa, batasun hori apurtzen saiatu zen. Horretarako, alkateak batzar batera deitu zituen; ez, ordea, talde osoa, baizik eta Nafarroako alkateak Nafarroan, Gipuzkoakoak Gipuzkoan... Baina alkate abertzaleek uko egin zioten batzarrari, ez ziren joan. Ondorioz, batzar hura porrot hutsa izan zen.

Bere aldetik, alkate abertzaleek erabaki zuten guztiak batera egin behar zutela batzarra. Etxarri-Aranatz aukeratu zuten kokaleku, eta haraxe joan ziren Euskal Herri osoko alkate, zinegotzi eta herritar mordoa. Baina, Antxalkora iritsi zirenean, Etxarritik hiru kilometrora, Guardia Zibilak ez



ziren aurrera egiten utzi. Arrasatekoek horrelakoetan esperientzia bazutenez, alde zurretik pentsatuta zuten, horrelakorik gertatuz gero, berriro buelta hartu eta Arrasatera itzuliko zirela. Horixe egin zuten argazkiko gure lagunek. Etxarrira joan ziren hainbat zinegotziren eta alkatearen emazteak dituzue. Ezkerretik hasita,

hauexek dira: Inaxi Lizarralde, Milagros Azkoaga, Dorita Murgia, Mariatxen Ezkurra eta Gloria Azkargorta (azken hau, Juan Antonio Altunaren emaztea). Baina, Mugarrira heldu zirenean, han ere Guardia Zibila zuten zain. Hortaz, Gatzagara joan ziren; han bazkaldu zuten eta iluntzean sartu ziren Arrasaten.

Gure berriemaileak ondo gogortzen du egun hartan bota zituen elur, txingor eta bestelakoak.

Argazkia: Bixente Azkarate
Informazioa: Bixente Azkarate eta Juan Antonio Altuna
Urtea: 1977

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Garagartza
auzoko zubia,
atzo eta gaur

Joan den urteko San Migel jaietako karteletan ikusi ahal izan zen Garagartza auzoko zubiaren argazki hau. Argazkia baino margolana da, eta jaietako egitaraua apaintzeko preheski aukeratua. Base-rria eta zubia berrituta daude gaur egun, eta zuhaitzek gora egin dute aspaldi. Hori dela eta, errepidetik zubia ikusteko zailtasunak daude gaur egun. Irudia ikusi besterik ez dago.



± 1935 Orduko erreka bazterrek zeukaten itxura eta gaur egun daukatena ikusita, pentsa daiteke zerbait ez dugula ondo egin.



2002 Garagartza auzoa azken urte hauetan izugarri aldatu da. Argi dago ganadu gutxi ikus dezakegula orain zubia gurutzatzen.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE

Monte
taberna

Maalako arrabaia, 11
Tel.: 943 79 20 56

ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ez • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA

D
eredua

D.B.H.

943 79 27 73

zurekin

HAURTZAINDEGIA

ZERO urtetik
61,00 Euroak hilean

La Merced Ikastetxea

2.
Merkealdia

%40

rainoko deskontua
kiroletako modan

%50

rainoko deskontua
kiroletako oinetakoetan

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garlbal Etorbidea
ARRASATE



Felix Iñurrategi - Baltistan
Fundazioa

*elkartasunean
mendia bide*



Felix Iñurrategi - Baltistan
Fundazioa

Durana kalea, 30
p.k. 34
20550 Aretxabaleta
(Gipuzkoa)

BAZKIDE IZAN NAHI DUT urtean 25 € ko ekarpena eginez

Izena Abizenak

N.A.N. I.F.K.

Helbidea Herria P.K.

Probintzia Tfnoa.

Ktu. kte. zenbakia (20 digito)

Sinadura